
EUSKAL LITERARURAREN HISTORIA (MODERNITATEKIK POSTMODERNITATERA)

ALTZA BHI BATXI 2B

TESTUINGURU HISTORIKOA

Euskal literaturak historian zehar, garatzeko hainbat zailtasun izan ditu. Hau ulertzeko, historiako hainbat gertaera ezagutzea ezinbestekoa da.

1975an frankismo garaia amaitu zen. Frankismo garaia oso gogorra izan zen euskal literaturarentzat, 1930eko hamarkadan lortutako euskal kulturaren garapena eta bultzada eten egin baitzen. Francisco Francoren diktadurak euskara eta beste hizkuntza gutxituak debekatu edo asko mugatu zituen. Euskal kultura eta identitatearen adierazpen publikoa ia desagertu egin zen. Hori dela eta, euskal idazkile askok erbestera jo zuten eta euskara familian edo ingurune pribatuan soilik matendu zen.

Hala ere, 1975an, Franco hil eta frankismo garaia amaitu zenean, trantsizio demokratikoa hasi zen. Hala, pixkanaka, euskaldunen artean euskara eta euskal kultura garatzeko itxaropena handitu zen.

1978ko Espainiako Konstituzioak euskaraz ikasteko eskubidea aitortu zuen eta autonomia estatutuak onartu zituen. Ondoren, 1979ko Gernikako Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari autogobernua eman zion. Modu horretan, euskara, berriz ere, hezkuntzan, administrazioetan eta komunikabideetan sartzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka.



1980ko hamarkadatik aurrera normalizazio garaia hasi zen; hau da, euskara sustatzeko politika publikoak sortu ziren. Alde batetik, eremu publikoan euskara libreki hitz egin ahal zen. Norabide berean, hezkuntzan ere euskaraz ikasteko ateak ere irekitzen hasi ziren. Hala, garai honetan, 1968an sortutako euskara batua sendotu egin zen, hain zuzen, euskara batua ezinbestekoa izan zen hezkuntza indartzeko eta babesteko. Gainera, argitaletxe, aldizkari eta kultur erakunde berriak sortu ziren. Eta literaturan nahiz komunikabideetan ere euskara batuaren aldeko apustua egin zen. Bestetik, 1982an, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea onartu zen. Lege honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntzari gizartean leku bat ematea zen. Horrela, euskara, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala bilakatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Modu honetan, 1990ko hamarkadan euskararen erabilerak administrazioan eta hezkuntzan garapen handia izan zuen. Gazteen artean euskal kultura zabaldu zen eta entretenimendurako gero eta aukera gehiago zeuzkaten; hala nola Euskal musika, literatura eta antzerkia gora zihoazten. Euskal Autonomia Erkidegoan herritar askok, beraien egunerokoan, berriz ere euskaraz egiten zuten, inolako arazorik gabe.

XXI. mendean, teknologia berriei eta globalizazioari esker, euskara inoiz baino gehiago zabaltzen hasi zen. Gaur egun ere, interneta, sare sozialak eta plataformak euskararen erabilerari aukera berriak ematen dizkiote. Hala, gero eta ezagunagoa eta ikusgarriagoa da gizartean euskara. Euskarazko webgune, blog eta komunikabideak sortu dira. Literaturan ere, ondoren aipatuko dugun bezala, aurrerapauso asko egin ziren, literatura genero, estilo eta formatu ezberdinak sortzen joan dira eta. Politikari dagokionez, euskararen normalizazioa bultzatzeko hainbat plan bultzatu dira.



TESTUINGURU LITERARIOA

Lehen aipatu dugun bezala, 1975ean diktadura frankista amaitu zen, Francoren heriotzarekin, eta horren ondorioz trantsizio demokratikoa hasi zen. Egoera politiko berri horrek aldaketa handiak ekarri zituen euskararen eta, ondorioz, euskal literaturaren garapenera. Testuinguru berri horretan hainbat faktorek izan zuten eragina.

Alde batetik, frankismoan euskara debekatua edo oso mugatua egon zen eremu publikoan, eta ondorioz, euskararen legalizazioak eragin handia izan zuen literaturaren garapenean. 1975etik aurrera, pixkanaka euskararen erabilera legalizatzen eta normalizatzen hasi zen eta horrek esan nahi zuen idazleek euskaraz idazteko aukera gehiago zutela, zentsura txikiagoarekin. Ondorioz, euskarazko liburuen kopurua handitu zen eta literaturak askatasun handiagoa lortu zuen gaiak eta estiloak lantzeko. Gainera, garai honetan euskarazko argitaletxeak sortu edo indartu ziren, eta horrek ere funtsezko papera izan zuen, argitaletxeek euskarazko lanak argitaratzeko aukera gehiago eman zutelako, bai helduen literaturan bai haur eta gazteen literaturan. Horri esker, euskal literaturaren ekoizpena eta zabalkundea nabarmen handitu zen.

Beste aldetik, trantsizio garaian eta ondorengo urteetan ikastolen mugimendua indartu zen eta eskola publikoetan ere euskarazko irakaskuntza zabaldu zen. Horrek eragin zuzena izan zuen literaturan, irakurle kopurua handitu baitzen. Gainera, haur eta gazte literaturaren garapena ere bultzatu zen, ikasleek euskaraz irakurri ahal izateko materiala behar zutelako.

Era berean, autonomia estatutuak eta erakunde berriek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak...) euskal kulturaren sustapena helburu gisa hartu zuten, diru-laguntzak, sariak eta kultur programak sortu zituzten. Horrek idazleak eta argitalpenak babestu zituen, eta literatur sorkuntza profesionalizatzen lagundu zuen.

Ondorioz, 1975etik aurrera sortutako testuinguru politiko eta sozial berriak euskal literaturaren berpizkunde eta modernizazio prozesua ekarri zuen, idazle berrien agerpena eta irakurleen hazkundera ahalbidetuz. Testuinguru horretan, literaturan hainbat aldaketa garrantzitsu gertatu ziren.



Lehenago idazle askok beste lan bat zuten eta literaturan jarduten zuten zaletasun edo konpromiso kultural gisa, baina trantsizioaren ondoren, babes instituzionalari, sari literarioei eta argitalpen aukeren hazkunderari esker, pixkanaka idazleek literaturan jarduera profesionalagoa garatzeko aukera izan zuten. Aldi berean, argitalpen kopurua nabarmen hazi zen eta genero literarioak dibertsifikatu egin ziren, haur eta gazte literaturatik hasi eta nobela esperimentalak edo saiakera literarioetara iritsiz. Testuinguru horretan agertu ziren euskal literaturako idazle garrantzitsuak, besteak beste Bernardo Atxaga edo Ramon Saizarbitoria.

1980ko hamarkadatik aurrera, euskal literaturaren modernizatzea begi-bistakoa izan zen, Europa osoko korrante literarioen eragina nabaritu baitzen. Garai honetan, idazleek narratiba zailtasun handiagoa erakutsi zuten, eta teknika berritzaileak erabiltzen hasi ziren, hala nola denbora eta pertsonaien ikuspegi aldaketa, barne-elkarrizketak edo istorioaren egitura zatikatuak. Aldi berean, literaturak euskal identitatearen eta memoria kolektiboaren hausnarketa jorratzen zuen, eta, testuinguru politikoari lotuta, gatazka politikoaren presentzia gai nagusien artean agertzen zen. Era berean, errealismo sozial tradizioaletik forma sinboliko eta esperimentalagoetara igaro zen, estilo eta forma berriekin esperimentatu baitzuten idazleek. Garai honetako obra klabeetako bat da *Obabakoak*, euskal literaturaren internazionalizazioa ekarri zuena eta modernitate horren adibide garbia da.

1990etik gaur egunera, testuinguru sozial, politiko eta kulturalak hainbat gai berriren inguruko hausnarketa ekarri du euskal literaturan. Literatur obrek identitateen fragmentazioa, memoria historikoa, trauma eta bortizkeria, indibidualismoa, globalizazioa eta migrazioak lantzen dituzte, eta baita genero ikuspegia ere, emakume idazleen eta genero-aniztasunaren ikuspegia ere sakon landu da eta. Aldi berean, literaturaren formek aldaketa nabarmenak jasan dituzte: generoen hibridazioa, autofikzioaren erabilera, metaliteratura eta literatura urbanoa bezalako estilo eta teknikak gero eta ohikoagoak bihurtu dira. Testuinguru honetan agertu dira hainbat autore garrantzitsu, besteak beste Arantza Urretabizkaia, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe, bakoitzak ikuspegi propioa ekarri dio euskal literaturaren modernitate eta postmodernitate prozesuari. Haien lanek gaur egungo euskal literaturaren aniztasuna, gai sozial eta kulturekiko sentsibilitatea eta formaren berrikuntza agerian jartzen dute.

1990etik gaur egunera arteko euskal literaturan, aurretik aipatutako gai eta joerez gain, gatazka politikoaren eta terrorismoaren errepresentazioak ere presentzia handia izan du. Literaturak askotan indarkeriaren ondorioak aztertu ditu, bereziki biktimen esperientziak, kulparen sentimendua eta gizartean egon den isiltasuna bezalako gaiak jorratu dituzte. Horren bidez, idazle askok iragan hurbilaren berrikuspen kritikoa egin dute, gizarteak bizi izan duen gatazka ulertu eta aztertzeko saiakera eginez. Testuinguru honetan, literatura askotan hausnarketa etikorako eta elkarrizketarako espazio bihurtu da, memoria lantzeko eta, neurri batean, errekontziliazioa bilatzeko leku sinboliko gisa. Literatura, beraz, iragan traumatikoari buruzko elkarrizketa soziala sustatzeko tresna ere bihurtu da.

Ondorio gisa, esan daiteke 1975etik gaur egunera arte euskal literaturak bilakaera sakona izan duela: frankismoaren amaierarekin hasi zen berpizkunde kulturalak literaturaren hazkundera eta modernizazioa ekarri zituen, eta ondorengo hamarkadetan literatura gero eta anitzagoa eta konplexuagoa bihurtu da, bai gaietan bai formetan. Horrela, euskal literaturak ez du soilik adierazpen artistiko gisa balio izan, baizik eta gizartearen memoria, identitatea eta gatazkak ulertzeko tresna garrantzitsu bihurtu da. Gainera, gaur egungo euskal literaturak tokiko esperientzia unibertsalarekin lotzeko gaitasuna erakutsi du, nazioarteko literatur panoraman ere presentzia lortu baitu.

ARANTXA URRETABIZKAIA

BIOGRAFIA

Arantxa Urretabizkaia, jaiotza-izenez María Aranzazu Urretabizcaya Bejarano, 1947ko uztailearen 1ean jaio zen Donostian, Loiola auzoan. Oso gaztetatik elkartu zituen lana eta prestakuntza: idazkaritza eta erizaintza ikasketak egin zituen lanean ari zenean, eta geroago Historian lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitatean.

1977tik aurrera, *Egin* egunkarian hasi zuen bere ibilbide profesionala kazetari gisa, eta, ondoren, ETBn, *Deian* eta *El Diario Vascon* egin zuen lan. Bere bizitzan zehar kultur giroekin oso lotuta egon da, Argia taldea edo LUR argitaletxea bezalako ekimenetan parte hartu zuen.



Kazetari izateaz gain, Urretabizkaia ibilbide luzea egin du idazle, itzultzaile, poeta, gidoilari eta zinemako aktore gisa. Bere ekoizpen literarioa, 50 urte baino gehiagoz irauten duena, batez ere euskaraz, hainbat hizkuntzatara itzulia izan da, eta horrek nazioartean zabaltzea erraztu du.

Azkenik, Urretabizkaia Euskaltzaindiko kidea ere bada, euskara babestu eta sustatzeko erakundea. Bere ibilbidean zehar hainbat errekonozimendu jaso ditu, hala nola Rikardo Arregi saria kazetaritzan egindako lanagatik.



IBILBIDE LITERARIOA

Arantxa Urretabizkaia (1947, Donostia) euskal literaturako ahotsik esanguratsuenetakoa bat da, bereziki emakumeen esperientzia, barne-mundua eta gizartearen egiturak ikuspegi kritiko eta berritzailetik landu dituelako. 1970eko hamarkadan hasi zen idazten, testuinguru historiko eta kultural oso berezian: frankismoaren amaiera, euskararen berpizkundea eta euskal literaturaren modernizazio prozesua. Garai hartan, euskarazko literatura berritzen ari zen, eta Urretabizkaia belaunaldi horretako partaidea aktiboa izan zen, bai literaturan bai kazetaritzan.

Bere lanek ahots intimo eta subjektiboa erakusten dute, sarri lehen pertsonaia kontatzen ditu eta emakumearen ikuspegitik aztertzen ditu esperientziak. Teknikoki, barne-bakarrizketa eta kontakizun zatikatua erabiltzen ditu, estilo berritzailea darabil, eta gai nagusien artean amatasuna, bakardadea, dependentzia emozionala eta emakumeen egoera soziala nabarmentzen dira, ordura arte gutxitan landuak izan direnak.

Garai hartatik aurrera, bere lanek ikuspegi psikologiko eta intimista garatzen dute, pertsonaia barne-bizitza lehen planoan jarriz eta kanpoko gertakariak bigarren mailan utziz. Egitura fragmentario eta gogoetatsuak erabiliz, memoria, identitatea eta autobiografiaren eta fikzioaren arteko mugak aztertzen ditu, baita gizarte eta kulturari buruzko hausnarketak sartuz.

Azken fasean, ikuspegi zabalagoa agertzen da: identitate kolektiboa lantzen du, bereziki emakumeena, eta belaunaldi eta ikuspegi desberdinak uztartuz emakumeen rola bilakaera eta iraunkortasuna azpimarratzen ditu. Bere lanek, beraz, estiloaren eta teknikaren bilakaera argia erakusten dute, baita gaietan sakontzea eta ikuspegi soziala zabaltzea ere.


Esan bezala, Arantxa Urretabizkaiaaren ibilbide osoan zehar hainbat gai nagusi ageri dira etengabe: emakumeen identitatea eta askatasunaren bilaketa, amatasunaren konplexutasuna, bakardadea, maitasun-harremanen tentsioak, eta gizartearen egitura patriarkalen kritika. Bere lanek ez dituzte soilik istorioak kontatzen; irakurlea interpelatu dute, galderak planteatu dituzte eta hausnarketa bultzatu dute.

Estiloari dagokionez, Urretabizkaiaaren idazkera zuzena, ekonomikoa eta aldi berean poetikoa da. Sarritan egitura ez-linealak erabiltzen ditu, barne-bakarrizketak, pentsamendu zatituak eta denboraren jauziak uztartuz. Honek guztiak pertsonaia psikologia sakon aztertzei aukera ematen dio, eta irakurlea pertsonaia kontzientzia barruan sartzen du.

Bere ekarpena funtsezkoa izan da euskal literaturan, bereziki emakume idazleen presentzia eta aitortza indartzeko. Aitzindarietako bat izan da emakumeen ahotsa erdigunera jartzen, eta ondorengo belaunaldietako idazle askorentzat erreferente bihurtu da. Gainera, euskaraz idaztearen aldeko konpromiso irmoa erakutsi du, hizkuntzaren normalizazioan eta literaturaren garapenean lagunduz.



PASARTE BATEN AZTERKETA



Zergatik Panpox Arantxa Urretabizkaia-ren lan ezagunenetakoa da eta euskal literaturan oso garrantzitsua den obra da. 1979an argitaratua, eleberri honek emakume baten barne mundua erakusten du modu bereziki intimoan, ama bakar baten eguneroko bizitza ardatz hartuta. Kontakizunak bakardadea, amatasuna eta harreman afektiboen hauskortasuna bezalako gaiak jorratzen ditu, ikuspegi errealista batetik.

Eleberriaren ezaugarri nagusietako bat bere narrazio teknika da, pentsamendu jarraituaren bidez garatua izan delako. Ez dago ohiko egitura linealik; aitzitik, protagonistaren pentsamenduak zuzenean agertzen dira, esaldi labur eta zatituen bidez. Horrek irakurlea pertsonaiaren buruan sartzea ahalbidetzen du, haren antsietatea, zalantzak eta eguneroko neke emozionala modu zuzenean biziartziz.

Protagonista emakume arrunta da, baina sakonki eraikia. Ama izateak definitzen du neurri handi batean, baina aldi berean hutsune emozional handia bizi du, bikotekidearen falta eraginda.

Bere pentsamenduetan etengabe agertzen dira zalantzak, tristura eta bakardade sentazioa, eta horrek garaiko emakume askoren egoera islatzen du, gizartearen rol tradizionalak baldintzatuta.

Amatasunaren tratamendua ere berezia da, ez baita idealizatzen. Maitasuna presente dagoen arren, nekea, frustrazioa eta desesperazioa ere agertzen dira. Protagonistaren egunerokotasuna errutinak markatzen du, eta horrek itotze sentazioa sortzen du. Ikuspegi honek berrikuntza ekarri zuen, amatasuna modu erreal eta konplexuan erakusten duelako.

Hizkuntzari dagokionez, estiloa sinplea baina oso adierazkorra da. Esaldi laburrek eta erritmo bereziak tentsio emozionala sortzen dute, eta eguneroko hizkeraren erabilerak naturaltasuna ematen dio testuari.

Azkenik, obra hau bere testuinguru sozialean ulertu behar da, 1970eko hamarkadan, emakumeen rola oraindik mugatua zenean eta ama bakarraren egoera ezohikoa edo zaila zenean. Horregatik, eleberria aitzindaria izan zen emakumeen ahotsa modu zuzen eta zintzoan literaturan argitaratzeagatik. Ondorioz, Zergatik Panpox funtsezko lana da, bai bere gaiengatik, bai bere estilo berritzaileagatik.



ANJEL LERTXUNDI

Euskal idazle garrantzitsua


BIOGRAFIA

Anjel Lertxundi euskal idazle garrantzitsuenetako bat da. 1948an jaio zen Orion, Andu izeneko baserri batean. Hala ere, txikitatik Zarautzen bizi izan da, eta herri horrek eragin handia izan du bere bizitzan eta bere lanetan. Gaztetan Donostiako Seminarioan ikasi zuen, eta ondoren irakasle izateko ikasketak egin zituen Donostian bertan. Bere jakintza handitzeko, Filosofia eta Letrak ikasi zituen Erroman eta Valentzian. Ikasketa hauek oso garrantzitsuak izan ziren, gero bere liburuetan agertzen diren ideiak eta hausnarketak hobeto ulertzeko.

Bere lan-bizitzari dagokionez, irakasle moduan aritu zen Salvatore Mitxelena ikastetxean. Han hainbat urte eman zituen, eta lau urtez zuzendaria ere izan zen. Irakasle izateak eragin handia izan zuen bere pentsamoldean, eta hori bere lanetan ere islatzen da, askotan hezkuntzari edo gizakiaren garapenari buruzko ideiak agertzen direlako. 1979tik 1989ra Euskal Literatura eta Literatura Unibertsala irakatsi zituen, eta horrek aukera eman zion literatura sakon ezagutzeko.



Bestalde, beste arlo batzuetan ere aritu da. Telebistan gidoilari eta programen aholkulari izan da, eta zineman ere lan egin du. Bi film zuzendu zituen: *Hamaseigarrenean*, *aidanez* eta *Kareletik*. *Zorion perfektua*, eleberria ere zinemara eraman zuten. Horrek erakusten du bere lanek arrakasta izan dutela eta beste formatu batzuetara ere egokitu direla.



IBILBIDE LITERARIOA

Anjel Lertxundiren ibilbide literarioa oso zabala eta aberatsa da. Genero askotan idatzi du: eleberriak, ipuinak, saiakerak, artikulua eta itzulpenak. Haur eta gazte literaturan ere aritu da, eta horrek erakusten du publiko mota askorentzat idazteko gaitasuna duela.

Bere lehen lana 1970ean argitaratu zuen, *Hunik arrats artean* izenekoa, eta ipuin bilduma bat da. Hasieratik argi ikusten da idazteko estilo berezia duela. Orduetik aurrera, etengabe idatzi du eta urte askotan zehar lan asko sortu ditu, euskal literaturan erreferente bihurtu da.

Bere lanik ezagunenaren artean daude *Hamaseigarrenean*, *aidanez*, *Zorion perfektua*, *Argizariaren egunak* eta *Eskarmenduaren paperak*. Lan hauetan askotan gai sakonak lantzen ditu, adibidez bizitzaren zentzua, denboraren joana, bakardadea edo pertsonen arteko harremanak. Ez dira istorio sinpleak, baizik eta irakurlea pentsatzera bultzatzen duten testuak.



*HAMASEIGARRENEAN,
AIDANEZ
Anjel Lertxundi*

Bere estiloari dagokionez, hizkuntza oso garrantzitsua da. Hitzekin jolastea gustatzen zaio, eta askotan hitz-jokoak erabiltzen ditu. Gainera, euskararen aldeko lana egin du, hitz berriekin jolastuz hizkuntza aberasten baitu. Hori bereziki garrantzitsua da gaur egungo munduan, non teknologiarekin lotutako hitz berriak behar diren.

Bestalde, interneten presentzia ere badu. BERRIA egunkarian "Hitz beste" izeneko bloga dauka, eta bertan bere ideiak, zalantzak eta hizkuntzari buruzko hausnarketak partekatzen ditu. Horrek erakusten du idazle moderno bat dela, nahiz eta teknologia asko gustatzen ez zaion.

Bere lanagatik sari asko jaso ditu. Kritikaren Sari Nazionala bi aldiz irabazi du, eta 1999an Euskadiko Literatura Saria jaso zuen *Argizariaren egunak* lanagatik. 2010ean Espainiako Literatura Sari Nazionala irabazi zuen *Eskarmenduaren paperak* lanagatik. Sari hauek oso garrantzitsuak dira eta bere lanaren kalitatea erakusten dute.

PASARTE BATEN AZTERKETA



Zorion perfektua Anjel Lertxundiren lanik ezagunenetako bat da, eta euskal literaturan garrantzi handia du. Eleberri honek arrakasta handia izan du urteetan zehar, bai irakurleen artean eta baita kritikaren aldetik ere. Gainera, zinemara ere egokitu zuten, eta horrek erakusten du istorioak indar handia duela eta jende askorengana iritsi dela. Liburu honetan egileak gai sakonak lantzen ditu, batez ere indarkeria, beldurra eta pertsonen barruko sentimenduak.

Pasarte batean, normalean, pertsonaia nagusia egoera zail batean agertzen da. Ez da beti kanpoko ekintza handirik gertatzen, baina barruan tentsio handia dago. Pertsonaia batek beldurra senti dezake, edo egoera arriskutsu baten aurrean egon daiteke. Horrelakoetan, egileak pertsonaiaren pentsamenduak eta sentimenduak azaltzen ditu, eta horrek irakurlea gehiago sartzen du istorioan.

Gai nagusia askotan pertsonaren barne borroka da. Hau da, pertsonaia bere barruan borrokan dago, zer egin ez dakielako edo egoera ulertzen saiatzen delako. Horrek testua sakonagoa egiten du, eta irakurleak ez du bakarrik ikusten zer gertatzen den, baizik eta nola sentitzen den pertsonaia.

Hizkerari dagokionez, Lertxundik estilo berezia du. Hizkera zaindua erabiltzen du, baina aldi berean ulerterraza da. Metaforak eta sinboloak erabiltzen ditu, eta horrek testuari sakontasuna ematen dio. Gainera, batzuetan ez du dena zuzenean esaten, eta irakurleak interpretatu behar du. Hitz-jokoak ere ager daitezke, eta horrek hizkuntza aberasten du.

Testuaren erritmoa normalean lasaia da. Ez da akzio azkarreko istorio bat, baizik eta poliki-poliki garatzen da. Horrela, irakurleak denbora dauka pentsatzeko eta pertsonaien egoera ulertzeko.




JUAN MARI IRIGOIEN

BIOGRAFIA

Joan Mari Irigoien Aranberri Altzan (Gipuzkoa) jaio zen 1948ko irailaren 30ean eta 2023ko maiatzaren 17an hil zen Donostian, 74 urte zituela. Euskara hutsean idatzitako literaturaren izenburuetako bat izan da eta euskal literaturako egile entzutetsuenetakoa izan da azken hamarkadetan. Azken liburuen artean nobelak, poesia eta haur eta gazte literaturako lanak daude.

Ikasketaz Ingeniaritza egin zuen, baina bere bizitza profesionala nagusiki idazle, itzultzaile eta egile gisa garatu zuen. Zuzentzaile, irakasle eta telebistako gidoilaria ere izan zen, baita *Egin* egunkariko zuzendaria ere. Beste aldetik, gaztetan futbol jokalaria ere izan zen, Errealeko bigarren taldean jokatu zuen.

Bere ibilbidean, Irigoienek 30 liburu inguru argitaratu zituen, nobela, poesia eta ipuinak barne. Bere lehen argitalpena 1975ean etorri zen poemario batekin (*Hutsetik esperantzara*), eta bere lehen nobela 1976ean (*Oilarraren promesa*) argitaratu zen. Gerora beste eleberririk garrantzitsu batzuk etorri ziren, hala nola *Poliedroaren hostoak*, *Udazkenaren balkoitik*, *Babilonia* eta *Lur bat haratago*.



Irigoienek hainbat sari literario jaso dituen egile indartsu eta errespetatua da; adibidez, *Babilonia* eta *Udazkenaren balkoitik* lanek Premio Euskadi eta Premio de la Crítica bezalako aitortzak jaso dituzte. Bere estiloa askotarikoa eta sakona da, errealismoarekin, psikologia eta herri-ingurunearen azterketarekin lotua. Bere lanak euskarazko idazlan garrantzitsuen artean daude, eta irakurle askoren artean eragin sendoa utzi du, euskal identitatea, memoria eta gizakiaren barne-bizipenak modu sakonean jorratuz.



IBILBIDE LITERARIOA

Juan Mari Irigoienen ibilbide literarioa aberatsa eta konplexua izan zen, eta euskal literaturan eragin nabarmena izan zuen. Poemetan gizakiaren barne gatazkak, fedea, maitasuna eta bakardadea jorratzen zituen, introspektzio sakon eta estilo poetiko bereziarekin.

Denborarekin, Irigoien eleberrigintzara igaro zen, eta genero horretan ere arrakasta handia lortu zuen. Bere lehen lan nagusien artean *Babilonia* (1989) nabarmentzen da, gizartearen eta gizakiaren kontraesanen inguruko hausnarketa sakona eskaintzen duena. Ondoren *Lur bat haratago* (2000) argitaratu zuen, identitateari eta existentziari buruzko gogoeta sakona egiten duena, eta *Sorginen laratza* (2008), non historia eta fikzioa modu harmoniatsuan uztartzen dituen. Bere lan guztietan hizkuntza zaindua eta aberatsa erabiltzen zuen, eta askotan sinbolismoa eta elementu poetikoak narrazioarekin nahasten zituen, bere estilo bereizgarria sortuz.

Literatura munduan presentzia aktiboa izan zuen, aldizkari eta egunkarietan parte hartu zuen eta euskal literaturaren garapenean ekarpenak egin zituen. Beste idazleekin harremanak izan zituen eta belaunaldi berrientzako erreferente literario bihurtu zen. Bere obraren bidez, gizarteari eta gizakiari buruzko hausnarketak eskaini zizkion, eta euskararen erabilera eta sustapenean konpromiso sendoa erakutsi zuen.



Bere lana hainbat hizkuntzatarara itzuli zen, eta horri esker nazioartean ere ezaguna bihurtu zen. Hala, Irigoien euskal literaturako ahots sendo eta originaletako bat izan zen, eta bere lanek gaur egun ere indarrean jarraitzen dute, irakurle berriak erakarrit eta euskal kulturaren ondarean leku garrantzitsua hartuz.

Juan Mari Irigoienek bere lanetan euskara eta identitatearen gaia modu sakonean lantzen du. Bere estiloa lirikoa eta narratiboa da, askotan herriaren memoriara eta ohituretara jotzen duena. Testuak oso sentikorrak eta introspektiboak dira, pertsonen emozioak eta barne-mundua nabarmentzen dituztenak. Irigoienen obretan natura eta paisaia elementu narratibo gisa erabiltzen dira, giroa eta sentimenduak indartuz. Hizkuntza sinplea baina sendoa erabiltzen du, irakurlearen arreta edukiz eta mezu sakonak transmitituz. Gainera, bere kontakizunek historian eta garaiko gizarte-egoeretan oinarritutako gai sozial eta kulturalak aztertzen dituzte, oroimen kolektiboa eta identitatea lotuz. Ohikoak dira pertsonaien arteko elkarrizketak eta introspektzioak, istorioaren dinamika eta erritmoa indartzen dutenak.

PASARTE BATEN AZTERKETA

BABILONIA

«...Eta alde batetik egia bada, bestetik ez. Izan ere gure etxe inguruan apenas izan zen tirorik, baina pasa bai, pasatzen ziren soldaduak batetik bestera, batzuetan zuriak, besteetan beltzak... eta noiz edo noiz baserri batean nahiz bestean egiten zuten gaua. Haiek ez ziren lo egitearekin bakarrik konformatuko ordea, eta ahal zutenean behiren bat edo beste akabatuko zuten, behia edo ardi batzu... edo besterik ezean oilo batzu...»



Pasarte honek *Babilonia* eleberriaren testuinguru historiko eta soziala modu zuzenean eta errealistan erakusten du. Narratzailearen ahotsak egia eta irudipena nahasten ditu, “alde batetik egia bada, bestetik ez” esaldian kontakizunaren subjektibotasuna eta oroimenaren malgutasuna nabarmentzen dira. Gerraren presentzia ez da beti ikusgarria edo handia eta irakurlearen arreta une horietara zuzentzen du. Pasartean azaltzen denean “ahal zutenean behiren bat edo beste akabatuko zuten, behia edo ardi batzu... edo besterik ezean oilo batzu”, gerraren indarrak eta bortizkeriak egunerokotasunean duen eragina argi ikusten da. Honek erakusten du gatazka handiek ez dutela soilik borroka lerroan eragina izaten, baizik eta baserri txikien eta herriaren egunerokotasunean ere agertzen direla.

Hizkuntza erraza, zuzena eta kohesionatua erabiltzeak gertakarien larritasuna eta bizi-bizitasuna nabarmentzen ditu. Deskribapen horiek irakurlearen buruan irudi garbiak sortzen dituzte, gertakari txikiek duten inpaktu emozionala agerian jarritz. Testuak, halaber, narratzailearen ikuspegia eta kontakizunaren fideltasuna uztartzen ditu, irakurleari gerra eta bakearen arteko eremuko errealitatea modu hurbilean erakusten zaio. Irigoienek istorio txikien bitartez historiaren eta gizartearen eragina azpimarratzen du, eta modu naturalean integratzen ditu gertakari dramatiko eta txikiak, testuaren erritmo dinamikoan.


Laburbilduz, pasarte honek *Babilonia* eleberriaren indarra eta sakontasuna agerian uzten du: gerraren eragina, oroimen subjektiboa eta eguneroko bizitza modu indartsuan uztartzen ditu, eta narratzailearen ikuspegia eta hizkuntza zuzena erabiliz, irakurlea gertakarien barne esperientzian murgiltzen du.

BERNADO ATXAGA

BIOGRAFIA

Bernardo Atxaga 1951n jaio zen Asteasun, Jose Irazu Garmendia izenarekin. Ekonomia ikasketak egin zituen Bilbon eta, denborarekin, Euskaltzaindian sartu zen. Ezizena beste autore batzuen eraginez eta frankismoaren garaiko zentsura saihesteko aukeratu zuen, euskal kulturarentzat garai zaila izan baitzen.

Haurtzarotik irakurtzeko eta idazteko zaletasun handia erakutsi zuen, eragin handia izan zuen bere familia-inguruneak, ama irakaslea baitzen. Baserri giroan hazi zen, naturaz eta euskal hiztunez inguratuta, eta herri kontakizun ugari entzun zituen, batez ere aitari laguntzen zionean. Esperientzia horiek guztiek sakon markatu zuten bere iruditeria literarioa, eta hamahiru urterekin bere lehen poema idatzi zuen, bere bokazio goiztiarraren seinale.



Geroago, bere familia Andoainera joan zen, non liburutegi publikoa aurkitu zuen eta bere heziketan eragina izan zuten Stevenson, Melville edo Conrad bezalako autoreak irakurtzen hasi zen. Donostian ikasi zuen eta literatur lehiaketetan parte hartu zuen, idazketarako interesa indartuz. Bilboko unibertsitate garaian, aldaketa kultural eta politikoaren testuinguruan, bere lehen testuak argitaratzen hasi zen. Gabriel Arestiren laguntza funtsezkoa izan zen bere bilakaeran, eta, geroago, hainbat lan eta idazketa uztartu zituen, Pott Banda taldeko kide izateaz gain, euskal literatura garaikidearen berrikuntza bultzatu zuen taldea.




IBILBIDE LITERARIOA

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Bernardo Atxagak erabaki zuen idazketa izango zela bere lanbidea. Aldi horretan hainbat generorekin esperimentatu zuen: poesia, narratiba, antzerkia eta haur-literatura. Bere lorpen handienetako bat Obaba sortzea izan zen, haurtzaroan inspiratutako fikziozko leku bat, non benetakoa eta fantastikoa nahasten zituen eta bere istorio asko kokatzen zituen.



Munduak 1988an aurkitu eta ezagutu zuen bere talentua, irudimenezko geografia horretan girotutako kontakizun multzo batekin: *Obabakoak*. Lan hau hizkuntza askotara itzuli zen eta kritikarien eta irakurleen aho bateko laudorioak jaso zituen, Atxaga nazioartean euskal idazlerik ezagunenetako bat bihurtu zen horrela.

Bere ibilbidean zehar liburu ugari argitaratu ditu eta sari garrantzitsuak lortu ditu, horien artean 1989ko Narratiba Sari Nazionala. Bere eleberri aipagarrien artean daude *Gizona bere bakardadean*, *Zeru horiek* eta *Soinujolearen semea*, non Euskal Herriko memoria, identitatea, indarkeria eta errealitate politikoa jorratzen dituen. Gazte literatura ere arakatu du, besteak beste, *Behi euskaldun baten memoriak*, publiko gaztea konkistatu duena.



Bere lana ez da idazketara mugatzen: musikariekin, artistekin eta beste sortzaile batzuekin lan egin du kultur proiektuetan, adierazpide berriak aztertuz. Bere lanak mundu osoko unibertsitateetan ikasten dira eta hizkuntza askotara itzuli dira.

Gaur egun, Atxagak euskal literatura garaikidearen funtsezko figura izaten jarraitzen du. Bere liburuei esker, euskarak nazioarteko ikusgarritasuna irabazi du, eta erakutsi du hizkuntza gutxitu batek ere kalitatezko literatura ekoitz dezakeela irismen unibertsalarekin. Gasteizen bizi da eta idazten jarraitzen du, literaturarekiko pasioa eta euskal kulturarekiko konpromisoa bizirik mantenduz.

PASARTE BATEN AZTERKETA

KALATXORIAK

*Beren maitasunak errepasatzeko,
hiriko kalatxoriak
arratsero biltzen dira estazio aurrean;*

*Beren memoria liburuan
sandalo lore batez seinalatzen da
zubien eta
lapur zahartuen orrialdea.*

*Eta on derizkiete
teilatu pitzatuei ere,
merkatu alboko hondakinei;*

*Baina beren ekilibrista bihotzek
zer maite dezakete
gehien gehien;
Zer,
egunen mudapen
amaiezina ezpada;
Zer,
egunen mudapen
infinitoa baino gehiago.*

Bernardo Atxagaren "Kalatxoriak" poemak kalatxori batzuk, metafora bezala, aurkezten ditu, arratsaldero beren esperientziak gogoratzeko elkartzen direnak, memoria liburu bat errepasatzeko balute bezala. Hegazti horiek pertsonak sinbolizatzen dituzte, eta erakusten dute nola jotzen dugun iraganera itzultzera eta zenbait oroitzapeni balioa ematera beren esanahi emozionalagatik.

Egileak inperfektuarekiko maitasuna ere azpimarratzen du, eguneroko elementu hondatuak aipatuz, hala nola "teilatu pitzatuak eta merkatu alboko hondakinak". Horrela, edertasuna eta afektua idealean ez ezik, bizitzaren sinplean eta errealean ere aurkitzen direla transmititzen du.

Azkenik, poemaren arabera, garrantzitsuena denboraren etengabeko aldaketa da. Atxagak transmititu nahi du bizitza etengabeko mugimenduan dagoela eta eraldaketa hori gure existentziaren funtsezko zati gisa onartu eta baloratu behar dugula.



JOSEBA SARRIONANDIA

BIOGRAFIA

Joseba Sarrionandia 1958an jaio zen Iurretan (Bizkaia), eta gaztetatik erakutsi zuen literaturarekiko eta hizkuntzarekiko interesa. Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta ikasketek aukera eman zioten euskal literaturaren tradizioa sakon ezagutzeko, gero bere lanetan modu berritzailean erabiltzeko. Garai horretan hasi zen idazten eta hainbat aldizkaritan parte hartzen, pixkanaka bere estilo propioa garatu zuen.

Unibertsitate garaian eta ondorengo urteetan Pott Banda taldeko kide izan zen, eta talde horren bidez euskal literaturan aldaketa garrantzitsuak sustatu zituzten, estilo experimentalagoa eta modernoagoa landuz. Testuinguru horretan, Sarrionandiak bere lehen lanak argitaratu zituen eta euskal idazle gazteen belaunaldi berritzaile baten parte bihurtu zen.

Hala ere, bere bizitza erabat baldintzatu zuten egoera politikoek: 1980an atxilotu eta espetxeratu zuten, ETArekin lotura izatea egotzita. Kartzelan egon zen urteetan ere ez zion idazteari utzi, eta esperientzia horrek bere literaturan eragin handia izan zuen, askatasunaren gabezia, bakardadea eta gogoeta existentzialak bere lanetan agertu baitziren.



1985ean, Martuteneko kartzelatik ihes egitea lortu zuen modu ikusgarrian, kontzertu baten ondoren bozgorailu baten barruan ezkutatuta. Ihes horren ondoren erbestean bizi izan zen urte luzez, leku desberdinetan eta identitate ezkutuarekin, batez ere Kuban; egoera horrek bere bizitza baldintzatu ez ezik, bere ikuspegi literarioa ere sakon markatu zuen.

Erbestean egon arren, idazten jarraitu zuen etengabe, eta bere lanek oihartzun handia izan zuten euskal literaturan. Denborarekin bere egoera juridikoa aldatu zen, eta 2021ean Euskal Herrira itzuli zen; gaur egun, bere ibilbide pertsonal eta literarioagatik, euskal literaturako idazle garrantzitsuenetako bat da, bere bizitza eta obra estuki lotuta daudelarik.

IBILBIDE LITERARIOA

Joseba Sarrionandia-ren ibilbide literarioa oso zabala eta askotarikoa da, eta hasieratik nabarmendu zen euskal literaturan ahots berritzaile gisa; 1980ko hamarkadan plazaratu zituen bere lehen lanak, hala nola *Izuen gordeleketan barrena* eta *Narrazioak*, non jada ikus daitekeen hizkuntza poetiko eta iradokitzaile baten erabilera, irudi sinbolikoak eta erreferentzia kultural ugari uztartuz.

Garai berean eta ondorengo urteetan, bere lanek gero eta sakontasun handiagoa hartu zuten, batez ere *Ni ez naiz hemengoa* eta *Atabala eta euria* bezalako obretan, non erbestea, identitatea eta askatasunaren bilaketa bihurtu ziren gai nagusiak; testuinguru pertsonalak, hau da, kartzelaldiak eta ihesaldiak, eragin zuzena izan zuen bere idazkeran, eta literaturaren bidez bere egoera ulertzeko eta adierazteko bide bat aurkitu zuen.

1990eko hamarkadatik aurrera, bere lana are konplexuagoa eta esperimentalagoa bihurtu zen, *Hnuy illa nyha majah yahoo* bezalako lanetan ikus daitekeen bezala, non hizkuntzaren jokoak, intertestualitatea eta kultura desberdinen arteko nahasketak agertzen diren; etapa honetan Sarrionandiak bere estiloa sendotu zuen, irakurlea pentsatzera eta interpretatzera gonbidatzen duen literatura sortuz.

Ondoren, *Lagun izoztua* nobelarekin bere ibilbidean mugarri bat ezarri zuen, kontakizun sakon eta konplexua eskainiz, non pertsonaien barne mundua eta memoria lantzen diren; aldi berean, saiakeraren alorrean ere lan garrantzitsuak egin zituen, bereziki *Moroak gara behelaino artean?* lanean, non gogoeta politiko eta kultural sakonak plazaratzen dituen.

Azkenik, bere ibilbide literarioan zehar ezaugarri batzuk etengabe agertzen dira: hizkuntzarekiko maitasuna eta esperimentazioa, erbestea eta identitatearen inguruko kezka, eta literatura tresna gisa erabiltzea mundua ulertzeko; horregatik guztiagatik, Sarrionandia euskal literaturako idazle eraginkor eta eragin handikoenetakoa bihurtu da.



PASARTE BATEN AZTERKERA


NARRAZIOAK

Narrazioak-eko aukeratutako pasarteak, Joseba Sarrionandia idazlearenak, giza hizkuntzaren mugak aztertzen ditu. Bertan planteatzen da hitzek ez dutela beti pertsonak barruan daramana adierazteko nahikoa ahalmena, eta horrela egilearen literaturan nagusi diren ideiak aurkezten dira: barne esperientzia komunikatzeko zailtasuna.

Gaia kontuan hartuta, testua hizkuntzak emozio sakonak transmititzeko duen gaitasunik eza da. “Hitzak ez dira nahikoak” esaldia erabiliz, sentitzen dena eta esan daitekeenaren arteko tartea erakusten da. Modu horretan, isiltasuna komunikazio modu alternatibo gisa aurkezten du, hizkuntza hitzezkoak baino hurbilago egon daitekeelako egiarekiko.

Pasartearen mezua argia eta filosofikoa da. Sarrionandiak irakurlea hausnarketa egitera bultzatzen du, askotan garrantzitsua dena esanez ez geratzen delako. Isiltasuna ez da hutsunea, baizik eta esanahia duen adierazpen modua. Horrela, komunikazioak ez ditu soilik hitzak behar, baita implizitua eta hitzezkoak ez diren elementuak ere.

Estiloari dagokionez, egileak hizkuntza simple baina sakona erabiltzen du, esaldi labur eta indartsuekin. Gainera, baliabide literarioak erabiliz egiten du: paradoxa — isiltasuna hizkuntza gisa aurkeztea— eta kontrastea hitz egitearen eta isiltasunaren artean. Estilo honek irakurlea testuaren esanahia baino harago pentsatzera eramaten du.



Azkenik, pasarteak hizkuntzaren mugak kritikatzeko erabiltzen ditu eta isiltasunaren balioa azpimarratzen du adierazpen modu gisa. Idazketa sinpleak, ordea, ideia konplexu eta unibertsala transmititzen du, eta irakurlea bere komunikazioari eta hitzekin esaten ez denari buruz hausnarketa egitera gonbidatzen du.